

**LA CUMBRE
A MAILA****AIETE PASEALEKUA 2**

Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

17.600 m²-ko azalerako finka, zenbait eraikin biltzen dituena: etxe nagusia sotoaz, behe oinaz, solairu nagusiaz eta ganbaraz osatzen da; hegoaldean, pabiloi bat du aldamenean, sotoaz, behe oinaz eta azoteaz osatutakoa; eta, iparraldean, pabiloi handiago bat du, sotoaz, behe oinaz eta galeria beiratzatu batez osatzen dena. Gainera, lorezainarentzat etxe bat dago, ukuilua eta garajea dituena, bai eta gaztandegi bat eta "Calene" izeneko etxea ere. Lorategietan, baratzeak, itzal-zuhaitzak, fruta-arbolak eta zuhaixkak daude. Edateko ureko bi iturri natural eta teilatuetakoko euri urak biltzeko lurpeko andel bat ditu. Etxe nagusiari buruzko lehen datuak 1892koak dira, haren estalkia zaharberritu zenekoa. Horren ondoren, hainbat zabalkuntza eta zaharberritze-obra egin zituzten. Azken birgaitzea 1987koa da, eta finka goi mailako pertsona ospetsuentzat aldi baterako egoitza izateko egin zuten. 1999an, finka Barne Arazoetako Ministeriotik askatu zuten eta Herri Administrazioen Ministerioaren eskuetara pasatu zen.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berriazko erregimena:
Monumentu kategoriaz, kultura-intereseko ondasun deklaratzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa, Arte Ederretako eta Kultura Ondasunetako Zuzendaritza Nagusiaren 2003ko uztailaren 24ko Ebazpenaren bidez.
- * Eragindako ingurunea: adierazitako ebazpenak mugatutakoa. Ebazpen horretan, mugaketa literario hutsa da eta, hain zuzen, horregatik, erantsita doan grafikoan jasotakoa mugaketa horren hurbilketa bat da eta gutxi gorabeherakoa da.